

ERRETIROA, LANERAKO EZINTASUN IRAUNKORRAGATIK

ARAUDIA:

- Estatuko Klase Pasiboen Legearen Testu Bategina, apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia.
- Administrazio Publikorako Estatuko Idazkaritzaren 1995ko abenduaren 29ko Ebazpena, Estatuaren Klase Pasiboen Araubidearen estalduraren eremuko langilezibilen erretirorako prozeduren arauari buruzkoa.

BALDINTZAK:

Erretiro mota hau emanen da interesdunak egonkortua dagoen eta atzeraezina den edo itzulgarritasun zaileko lesio edo prozesu patologiko, somatikoa edo psikikoa duenean eta lesio edo prozesu horrek bere kidegoaren eginkizunak gauzatzea guztiz eragozten dionean, dagokion medikuntza organoaren nahitaezko irizpen loteslearekin.

PROZEDURA:

Erretirorako prozedura ofizioz edo funtzionario interesdunak eskatuta hasten ahal da, txosten medikoa erantsita. Prozedura hasita, jakinarazpena igortzen zaio Ezgaitasunak Baloratzeko Taldeari (EVI) funtzionarioaren azterketa medikoa egin dezan, gaitasunari edo ezgaitasunari buruzko nahitaezko irizpen loteslea emateko.

1.- Ezgaitasuna aitortuz gero, Giza Baliabideen Zerbitzuak erretirorako tramiteak hasiko ditu eta “J inprimakia” igorriko du, eta bertan, besteak beste, bere espediente pertsonalean agertzen diren Administrazio Publikoei emandako zerbitzuak adieraziko dira.

Ondoren Erretiroaren ebazpena emanen da, eta interesdunari eta pentsioa ordaintzeko organo eskudunei igorriko zaie.

2.- Ezgaitasuna ukatuz gero, Giza Baliabideen Zerbitzuak Ezgaitasunak Baloratzeko Taldearen (EVI) irizpena igorriko dio interesdunari, eta alegazioak egin ditzan 15 eguneko epea eman. Alegazio idazki hori berriro igorriko zaio Ezgaitasunak Baloratzeko Taldeari (EVI):

a) Irizpena berretsiz gero, Giza Baliabideen Zerbitzuak ebazpena emanen du eta bertan adieraziko du langilea bere lanpostura itzuli beharreko eguna.

b) Alegazioak onartzen badira eta Ezgaitasunak Baloratzeko Taldeak ezgaitasunaren aldeko irizpena ematen badu, Giza Baliabideen Zerbitzuak erretiroaren tramitazioa hasiko du eta eta “J inprimakia” igorriko du, bertan, besteak beste, bere espediente pertsonalean agertzen diren Administrazio Publikoei emandako zerbitzuak adieraziko dira.

Ondoren Erretiroaren ebazpena emanen da, eta interesdunari eta pentsioa ordaintzeko organo eskudunei igorriko zaie.

ZERBITZUAK ZENBATZEA EZINTASUNAGATIKO ERRETIROETAN:

Ezintasun iraunkorragatiko edo ezgaitasunagatiko erretiro pentsioa adinagatiko erretiroaren ohiko pentsioaren modu berean kalkulaten da, berezitasun batekin, funtzionarioa zerbitzu aktiboan edo antzeko egoeran dagoenean, benetan egindako zerbitzutat hartuko dira, une hori arte egiaztatutakoez gain, funtzionarioari erretiro adina edo nahitaezko erretiroa betetzeko geratzen zaizkion urte osoak. Benetan egindako zerbitzutzat hartuko dira erretiroa dela eta, kargutik kentzea eman den unean atxikia dagoen kidego, eskala, lantoki, enplegu edo kategorian emandako denbora.

Dena dela, **2009ko urtarrilaren 1etik** aurrera, gertaera eragilearen unean interesdunak hogeit hamar urte baino gutxiagoko zerbitzua egiaztatzen badu eta **ezgaitasunak edo ezintasunak lanbide guztietarako ezgaitzen ez badu, erretiroaren ohiko pentsioaren zenbatekoa %5 gutxituko da** zerbitzuko 20 urte bete arte falta den zerbitzu urte oso bakoitzeko, gehienez ere % 5 15 zerbitzu urte edo gutxiago egiaztatzen dutenendako. Pentsioa aitortu eta gero eta nahitaezko erretiro adina bete baino lehen interesdunaren eritasuna edo lesioak okerrera eginez gero edozein lanbide betetzeko ezgaituz, pentsioaren zenbatekoa zegokionaren % 100 gehitzen ahalko da.